

TOURÉ

612 euro

JON ARRETXE



erein

TOURÉ

612 euro

36

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

2. argitalpena: 2025eko martxoan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

A. Beltza | Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-047-6

L. G.: D 357-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com

TOURÉ

612 euro

JON ARRETXE

Autoreak eguneratutako edizioa

| 2025eko martxoan |

erein

Edu eta Inmari

I

UZTAILAREN 4a



1

Bost bat minutu dira Parisko autobusa Bilboko terminalera ailegatu dela. Ate guztiak irekita daude, bidaiariak aterata dauzkate euren ondasunak, baina haietariko asko, alde egin beharrean, gidariarekin hitz egiten ari dira, eta ez dirudi batere pozik daudenik helmugara ailegatzeagatik. Kontrakoa, oso haserre dihardute, keinu nabarmenak eginez euren maletak eta maletategia seinalatuz:

—Geldialdietan inor ez bada gure gauzetara hurbildu —kexatu da andre bat—, nola liteke nire nezeserra desagertzea maletatik?

—Niri ordenagailua ostu didate! —dio gizon batek.

—Nire motxila ere ireki dute eta kamera falta zait —protestatu du neska gazte batek, bere ondasunak urduri arakatuz.

Bus-gidariak ez daki zer erantzun inguratzen duten kexati berotuei, langile trebatua izan arren ez baitzaio inoiz gisa horretako lapurretarik gertatu. Ziur dago ezezagunik ez dela autobusera hurbildu bidaian zehar maletategia ireki duenean, bidaiarietako batek hainbeste gauza hain arin ostea ere ezinezkoa iruditzen zaio, eta ez dio gertatutakoari inolako azalpenik aurkitzen. Beste horrenbeste gertatzen zaio iskanbila baretzeko asmoz termibuseko bulegotik etorritako arduradunari.

Bien bitartean, gizon beltz txiki lodi bat autobusetik urruntzen ari da maleta gurpildun handi bati tiraka, bidaideen protestei entzungor. Terminaleko eremutik irten, zebra-bide bat zeharkatu eta bus-geltoki inguruko jendetzarengandik nahikoa urrundu dela begitandu zaio-
nean, zakarrontzi batzuen atzean gelditu, alde batera eta bestera so egin eta maleta ireki du. Mutiko txiki argal bat irten da barrutik, metro bat pasatxo eta hogeiki kilo inguru izango dituen.

—Zenbat tardatu duzun, aita! —protestatu du, txilibitu ahotsaz—. Ia ito naiz barruan!

—Ez da horrenbesterako izango, Garan.

Umea hazka ari da buruko kizkurren artean, atseka-bez.

—Esan nizun —berriz aitak— inoiz baino luzeagoa izango zela gaurko jolasa. Goserik, behintzat, ez duzu pasatu, ezta?

—Ez, gusanito guztiak jan ditut.

—Eta bokata?

—Zati bat utzi dut.

—Zergatik?

—Urdaiazpiko egosia ez zaidalako asko gustatzen, badakizu saltxitxoia nahiago dudala.

—Urdaiazpiko egosia osasungarriagoa da, eta gutxiago loditzen du.

—Baina gutxiago gustatzen zait.

—Bueno, ahaztu bokatarena. Bestela, ondo?

—Txizalarria izan da txarrena.

—Ez duzu potoa erabili?

—Bai, hemen daukat.

—Ekarri.

Gizonak maletatik likido horixkaz betetako kristalezko potoa atera eta alboko zakarrontzi horira bota du.

—Aita, hemen kristalak zakarrontzi berdean sartu behar dira.

—Zelan dakizu? Parisen ez dago horrelakorik.

—Eskolan ikasi dut. Nahi duzu hartzea? —Muti-koak kontainer horian igotzekoa egin du.

—Ez. —Gerritik oratuta jaitsarazi du aita—. Zakar-biltzaileek aldatuko dute lekuz. Orduan, bidaia luzea izan arren, ez zara gehiegi aspertu, ezta?

—Ez, zera! Sakelakoa ez didazunez utzi, denbora fardel artean etzanda eman behar izan dut, ezer egin barik! Bueno, autobusa gelditu den guztietan, gure maletan ezkutatu naiz arin-arin.

—Erraz sartu eta irten zara?

—Bai, beti legez.

—Eta ez duzu beldurrik pasatu?

—Ezta batere.

—Hau da nire ume ausarta!

Aitaren laudorioek arindu dute pixkanaka mutikoaren atsekabea.

—Maleta asko ireki dituzu? –jarraitu du gizonak.

—Batzuk bai. –Umearen begitartea argitu egin da–.

Eta oso gauza politak aurkitu ditut.

Gurpildun maletatik Bob Esponjaren irudia daukan motxila txiki bat atera eta ireki egin du.

—Beitu, aita, beitu! –esan du, begiak zabalduz erabat.

—Ez atera gauzak hemen, Garan. –Gizonak begiratu laburra egin du motxilatxo barrura eta beste horrenbeste ingurura–. Uste dut osabaren etxea ez dagoela urrunegi eta han aztertuko dugu dena lasaiago. Gorde motxila maletan eta goazen.

—Neuk eramango dut motxila, neuk! –protestatu du umeak.

—Ez da astunegia?

—Ez.

—Ondo da, zeuk eraman, baina kontuz barruko gauzekin, eta nekatzen zarenean, esan. Ados?

—Ados.

Mutikoak Bob Esponjaren motxilatxoa bizkarrean jarri du, aitak ia hutsik zegoen maletatzar gurpilduna

berriz itxi eta errepede bat zeharkatu dute eskutik helduta. Hortik gutxira, bidegurutze batera ailegatu, gizonak poltsikotik paper bat atera eta andre biri bertan idatzitako helbideaz galdetu die. Haietako bat azalpenak ematen hasi zaio, San Frantzisko auzorantz seinalatuz.

2

Pot eginda nindoan etxera bueltan uztailaren hasierako gau sargori hartan, eta errudun nagusia Errekaldeko zezensuzkoa izan zen. Izan ere, ez nuen uste tramankulu hura hain astuna izango zenik, eta, suaren kontrako arropa berezi eta itogarria jantzarazi ondoren, kutxa adardun madarikatu hura bizkar gainean jarri zidatenerako damututa nengoen proposamena onartu izanaz. «Gurea apurtxo bat pisutsuagoa da normalak baino, ze ez da oso berria, baina zu gizakote indartsua zara eta eutsi goiari!», esan zidaten jaien antolakuntzaz arduratzen ziren kabroi haiek, eta horixe pisutsua zela, lau pauso eman orduko jabetu nintzen zelako zigorra izango zen niretzat saio hura. Gainera, ez zen nahikoa oinez egitea Errekaldeko plazako zirkuitua, arineketan egin behar nuela esan zidaten eta, madarikazio bat botata, korrika hasi nintzen autopista-peko eremu zatar hartatik, egiazko zezena banintz bezala jokatzuz, nire bizkar gainetik eten barik petardoak lehertu

eta suziriak ateratzen zirela sentituz, umeek kolpekatzen nindutela, mozkortiek zirikatu eta kalimotxo botatzen zidatela, izerdi patsetan bero itzelaren eraginez...

Minutu batzuk baino ez omen ziren izan, baina niri orduak iruditu zitzaizkidan, eta, txarrena, ospakizun gautar eta zentzugabe hartatik atera nuen guztia hogei euroko billete ziztrin bat izan zen, jakineko laudorioetatik aparte: «Inoizko zezensuzkorik onena izan zara», esan zidaten korrikalari batzuek; «Zelako lasterraldiak, primeran pasatu du jendeak!», zenbait ikuslek; «Itzuli hurrengo gauetan, mesedez!», antolatzaileek...

Dirudienez, Errekalde auzoko jaietan azken urteetan nekez aurkitzen zuten zezensuzkoarena egiteko prest zegoen jendea, prezio horretan, behintzat, «krisiaren kontura asko murriztu zaizkigu aurrekontuak, aseguruak ere ordaindu behar dira...». Eta antzeko zerbait gertatzen omen zen umeen atzetik korrika egin behar zuten buruhandiek. Eta ez Errekalden bakarrik, beste auzo eta herri askotan ere egoera berdintsua ei zen. Horren ondorioz, jaien antolatzaileak senegaldar kinkila-saltzaile eta horrelako gosekilen artean hasiak ziren gizonezkoak erreklutatzen, haiek sarri prest egoten baitziren eskupekotxo baten truke edozer egiteko, nahiz eta Errekaldeko zezensuzkoarekin, behintzat, behin probatzen zutenei errepikatze gogorik geratu ez.

Edonola ere, ni, Burkina Fasoko gosekil hau, prest egon nintzen zeregin hura onartzeko. Hilabete batzuk

lehenago esan balidate, barre egingo nion eskaintza hari, baina Txema liburu-saltzaileak deitu zidanean ez nengoen boladarik onenean. Aste batzuk ziren elkartzen ez ginela eta poz handia eman zidan haren ahotsa berriz entzuteak. Izan ere, bera nuen Bilbo Zuriko lagunik onena. Kasualitate hutsez ezagutu nuen egun baten Ledesma kaleko bere lantokian eta, haren izaera bitxi bezain irekiari esker, berehala kolega antzeko zerbait egin ginen.

—Touré! —oihukatu zidan telefonoaz beste aldetik bere ohiko hizkera alaiaz—. Zelan zabilta lan aldetik aspaldi honetan?

—Lar ondo ez.

—Kasu asko daukazu esku artean?

—Bat ere ez.

—Eta operarik?

—Denboraldia amaitu egin da. Urriko operan parte hartuko dudala agindu didate, baina ordura arte ez dut sosik ikusiko.

—Ba beitu, kasualitatez Errekalden nago liburu batzuk banatzen, neure auzoan, badakizu. —*Tele-liburu* antzeko zerbitzua egiten zuen Txema potolo zoriontsuak, motorrez, Urtxintxa liburu-dendarentzat—. Jai-batzordean dagoen lagun bat topatu dut eta proposamen bat egin dit interesgarria izan daitekeena.

Eta, besterik ezean, proposamen hura onartu egin nuen, bai eta bete, damutu, eta neure buruari zin egin ere beste inoiz harrapatuko ez nindutela, sekula ere ez, pentsatu

ere ez! Behintzat lanaldia amaitu eta hogeï euroko bille-
tea poltsikoan gordeta etxera txintxo-txintxo itzuli ba-
nintz, probetxu txiki bat aterako nion zeregin hari, baina
ez nuen hala jokatu, eta horren errudun nagusia Txema
izan zen. Izan ere, zezensuzkoaren tramankulu zipildua
kendu bezain laster, arnasari buelta emateko astirik gabe,
bere estiloko atzaparkada pare bat jo zizkidan sorbaldan.
«Ederto, Touré!» esan eta trago batzuk hartzea proposatu
zidan. Soberan nekien harekin alferrik zirela aitzakiak eta
gainera, zer arraio, ondo etorriko zitzaidan kaña pare bat
pixka bat hidratatzeko.

Arazoa da ez zela kaña pare bat izan, hamaikatxo pare
baizik eta, noski, hogeï euroek ez zidaten gehiegi iraun
txosnarik txosna eta tabernarik taberna hartu genuen
martxa itzelean, are gutxiago plantxa nazkagarri baten
prestatu zizkiguten solomo belztuko ogitartekoak eta
postreko txurroak irentsi ondoren. Liburu-banatzaille ase
ezinak, ohi bezala, diruaz ez kezkatzeko esan zidan; be-
rak jarraitu zuen tragoak ordaintzen, eta azkenean aitzur
galantaz amaitu genuen biok. Eta, elkarrekin egin ohi ge-
nituen poteo basatietan jokutzen nuen erara, orduko
hartan ere komunera egin zuen bisita bat aprobetxatu be-
har izan nuen oharkabea ihes egiteko.

Gaueko hiru eta erdiak markatzen zituen Zabalburu
plazako erlojuak ordu erdiko ibilaldiaren ondoren handik
pasatu nintzenean. Hari begira zeharkatu nuen errepidea,
lur jota, erdi lo, eta auto baten ziztu bizian zihoazen pijo

zuri batzuek ni harrapatzekoa egin eta txiste txar bat bota zidaten nire azalaren koloreaz. Horrek apur bat bizkortu ninduen, baina luzea egiten ari zitzaidan buelta, ohea besterik ez neukan buruan, eta Zabalburu plaza atzean utzitakoan azkenik begiz jo nuen nire bizilekua, San Franzisko auzoa.

Trenbideen arroila gaineko Kantaloja zubia zehar-katutakoan, afrikar batzuk ikusi nituen Fleming Dokto-rearen plazako jarlekuetan etzanda, eta horrek gogora ekarri zidan zein bolada eskasa pasatzen ari nintzen eta, hala jarraituz gero, nik ere bukatuko nuela kalean lo egiten. 2011ko amaiera eta 2012ko hasiera primerakoak izan ziren niretzat, patuaren apetaz diru-iturri oparo bihurtu zitzaidan opera-munduari esker. Izan ere, Bilboko Opera Koruan kantatzeko aukera eman zidaten, nire bezalako baxu-ahotsen urritasunari esker, antza, eta kopuru ederrak jaso nituen zeregin haren truke. Bigarren diru-iturri bat ere baneukan han, koruan entxufatu ninduen Txaro soprano aberatsa, oso eskuzabala izan zena nirekin hilabete haietan. Atso asegaitza, nire ahotsaz bari-rik nire gorputzaz aprobeztatzen zen, eta ni haren diruaz, halandaze dena primeran zihoan.

Ez nuen esku artean inoiz hainbeste diru erabili eta ez zitzaidan, jakina, ezer gordetzea bururatu. Kopuru handiak bidali nizekion Gorom-Gorom-eko familiari, gelakide neukan Osman maliar beteranoari espazioa utzi eta beste gela bat hartu nuen niretzat bakarrik pisu berean,

euren herrialdera bota zituzten senegaldarrek libre utzi zutena, hain zuzen. Orduan ez zitzaidan arazo larria iruditzen alokairuaren truke ehun eta berrogeita hamar euro ordaintzetik hirurehunera pasatzea, eta pisukideei lagundu egin nien gastuekin, haiek nirekin lehenago egin zuten bezala, batez ere Osmanek. Paperak behingoz lortzeko tramitazioak erraztearren ere ia bi mila euro eman nizkion fidagarria zirudien abokatu bati, eta bazirudien luze barik eskuratuko nuela ditzosozko lan eta egoitza baimena, atzerritarrok bakean bizitzeko derrigorrez behar genuen agiria.

Baina apirilaz geroztik gauzak okertzen hasi ziren. Euskaldunan kantatu behar ziren hurrengo operak koru txikikoak ziren, nire gisako kolaboratzaileen beharrik ez zeukatenak, eta handik aurrera ez nuen xentimorik ikusi kantuaren bidez. Aldi berean, Txaro sopranoak utzi egin zion nire zerbitzu bereziak eskatzeari. Pentsa zitekeen nitaz aspertuta zegoela edo, agian, beste beltzen bat topatu zuela. Ez zen harritzekoa izango, berak aitortu baitzidan halaxe jokatzeko zuela.

Gauzak hala, eta txiroen biziraupena bermatzeko errentaren seiehun eta hamabi euroak jasotzea, paperak lortuta ere, ezinezko bihurtzen ari zenez, hirugarren diru-iturria baino ez zitzaidan gelditzen, teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti, magia-gizon, arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa; baina iturri hartatik tanta ziztrin batzuk baino ez

ziren ateratzen aspaldian. Proposamen interesgarrien faltan, lantzean behin auzoko afrikarrak etortzen zitzaizkidan kaurien bidez etorkizuna asmatzeko eskatuz: lanen bat lortu behar ote zuten, paper kontuak berehala konponduko zituzten, familia hona ekarri ahalko zuten... Baina gehienek ezin zidaten ordaindu eta zorretan uzten zidaten dirua, kauriek iragartzen zieten lanpostu hura lortzen zutenerako. Agian jabeturik zeuden iruzurti hutsa nintzela, batek daki. Edonola ere, Bilbo Zurian krisia bazegoen, San Frantziskoko Afrika Txikian arazoa askoz larriagoa zen.

Halako ideiak mamurtuz joan nintzen nire atarira hurbiltzen, auzoari izena ematen dion San Frantzisko kale luzean zehar, teoriar delinkuentzia kontrolatu behar zuten kamera finko ugarien kontrola sentituz. Maiatzak 2ko bidegurutzean, auzoko magrebtarren gogoko lekuan, ez zegoen inortxo ere. Pixka bat aurrerago, Harrobi kaleko bidegurutzean zeuden Ertzaintzaren autoetatik ahalik eta urrunen igaro eta, azkenik, 43 zenbakira iritsi nintzen. Berriz etorri zitzaidan burura nire koltxoi erosoia, eta hura gogoan ireki nuen atea, baita bigarren pisura igo ere, baina han, ustekabean, nire begi erdi itxiak atoan zabaldu ziren afrikar txiki lodi batekin topo egin zutenean. Ate alboko eskaileretan jesarrita zegoen, eta haren aldamenean mutiko mehe bat zeukan, burua maletatzar baten gainean ipinita, lo.

3

—Anaia! —bota zidan gizonak, eta erreakzionatzeko astirik eman gabe zutitu eta hunkiturik besarkatu ninduen. Haren burua ozta-ozta ailegatzan zitzaidan bularrera eta hantxe tinkatu zuen segundo batzuetan; gero jaso, eskuak nire sorbaldetan ezarri eta itaunka hasi zitzaidan.

—Zer moduz gurasoak?

—Ondo.

—Eta emaztea?

—Ondo.

—Eta seme-alabak?

—Ondo.

—...

Joan-etorriko afrikar galdera sorta amaigabeari ematen genion bitartean, solaskidearen buru gainetik berriz erreparatu nion maletaren ondoan esnatzen ari zen mutikoari. Begiak igurtzi eta so egin zidan. Ez nuen ezagutu, eta beste horrenbeste gertatzen zitzaidan oraindik lepotik zintzilik neukan gizontxoarekin.

—«Anaia» esan didazu? —itaundu nion galde-erantzunak amaitutakoan, haren tentakuluetatik askatzen nintzela. Hogeita hamataka urte izango zituen, nik baino gutxixeago, agian.

—Jakina, ez zara nitaz gogoratzen, Mamou? —Senideek horrela esaten zidaten, Mahamoud-en laburdura erabiliz—. Nik ere Touré daukat abizena, zuk bezala, ze

gure aitak anaiak ziren, edo lehengusuak gutxienez. Zu Gorom-Goromen jaio zinen eta ni Banin, zazpi meskiten herrian, badakizu. Baina nire aitak Boli Kostara lan bila alde egin eta ama hil zitzaidanean zuenera eraman ninduten eta elkarrekin eman genituen urte batzuk, aita itzuli eta berarekin eraman ninduen arte. Ez zara oraindik nitaz gogoratzen?

Ez nintzen gogoratzen, ez, eta sinesgogor so egin nion. Ohikoak ziren halako istorioak Burkina Fason eta bazitekeen gizon hark kontatzen zidana egia izatea, ipuin guztiz asmatua izan zitekeen bezalaxe. Nire haurtzaroan dozenaka ume ibiltzen ginen elkarrekin jolasten, jaten nahiz lo egiten Gorom-Goromeko etxe handiaren eremuan eta ez nuen inoiz oso argi eduki zeintzuk ginen anaia-arrebak, lehengusu-lehengusinak, bestelako senideak, bizilagun hutsak...

Nire mesfidantza sumatuz edo, gizontxoak beste argudio batekin probatu zuen:

—Paristik gatoz, zure alabak eman digu helbide hau.

—Sirak? —Atoan bizkortu ninduen haren aipamenak. Aspalditik ez nuen ikusten eta lantzean behingo telefono deiak genituen harreman bakarra—. Ondo dago?

—Bai, gero eta politago, gainera. Emakume puxka bilakatzen ari da nire loba. —Ez zitzaidan batere gustatu zelan ahoskatu zituen azken hitzak.

—Badakizu zertan dabilen aspaldi honetan?

—Betikoan —erantzun zidan, nik ez jakiteagatik harrituta bezala—, umeak zaintzen. Garanez ere arduratu da noiz edo noiz.

Eskaileran jesarrita isilik eta txintxo aurpegiak zirauen umea seinalatu zidan. Ez dakit potoloak esango zion gaixo aurpegi hura ipintzeko, baina lortzen ari zen nik errukia sentitzea.

—Zenbat urte dauzka mutiko honek? —galdetu nion.

—Zure lobak? Sei.

—Gutxiago dirudi.

—Txikitxo da, bere aita bezala.

—Eta oso argala, argalegia. Ondo ematen diozu jaten?

—Noski, pasatzen dena da egun osoan dabilela korrika eta saltoka. Horrela ezinezkoa da loditzea.

Ez neukan batere argi entzuten ari nintzen gauzetatik zer sinetsi behar ote nuen, baina nire ustezko lobak pena eman zidan, ezin nuen kalean utzi eta, etxeko atea irekita, sartzen gonbidatu nituen, erabaki haren arriskuen jabe izan arren. Izan ere, afrikar bati etxeko atea irekitzen diozunean berdin gerta daiteke biharamunean desageretzea ezer esan barik edo pisukide uxaezin bihurtzea hurrengo hilabeteetarako.

Etxeko beste geletatik ez zen zaratarik ateratzen, bazirudien denak lotan zeudela, eta neure gelarantz eraman nuen bikotea. Bidean sukaldetik pasatu ginen eta su gaineko lapikoari erreparatu ziotela konturatu nintzen.

—Afaldu duzue?

—Ezer gutxi.

—Utzi gauzak gelan eta etorri. Zeozer berotuko dizuet.

Batere luzatu barik itzuli ziren sukaldera eta lapikoan sobratzen zen arroza berotutakoan gogotsu eman zioten jateari.

—Ez didazu oraindik esan –bota nion sasianaiari– zelan daukazun izena.

—Touré esaten dit jendeak, baina zu ere Touré zarenez, niri Cissé deitu ahal didazu. Semeak Garan dauka izena, esan dizut?

—Bai, esan didazu.

Arroza goseti irensten ari zen mutikoari so egin nion. Gorom-Goromen emaztearekin utziak neuzkan hiru semeak gogorarazi zizkidan. Txikiak haren adina izango zuen, gutxi gorabehera.

—Ez pentsa –esan zuen Cissé, nire hausnarraldia etenaz– zure abegi onaz abusatu nahi dugunik.

—Noski.

—Oraintxe ez daukat dirurik poltsikoan, xentimorik ere ez –oilasko hego bat zurrupatzen ari zen–, baina biharko asko eduki dezaket. Gauza bat baino ez dugu behar.

—Zer gauza?

—Jenero apur bat saltzeko tokia.

—Jenero apur bat? –Cisséren plateretik beste oilasko hegoa hartu eta umearen platerera pasatu nuen–. Zer jenero mota?

—Parisko lagunek-eta emandako tresna batzuk, haiek behar ez dituztenak: ordenagailu zaharren bat, kameraren bat...

Tresna horiek guztiak benetan lagunen opariak zirela sinetsi nahi izan nuen eta lokutorio baten izena eman nion, Osmanen lehengusuarena, hain zuzen.

—Bertan daukazu aukera —erantsi nuen— familiari dirua bidaltzeko ere, nahi izanez gero.

—Noski, lokutorio guztietan egoten da zerbitzu hori. Eta eduki nahi nuke nori bidali, baina ia ez zaigu familiarik geratzen Burkina Fason. Aita berriro desagertu zen eta ez zen inoiz itzuli, eta gainerako senide gehienak Europan zehar daude, gu bezala.

—Garanen ama?

—Hil egin zen.

—Eta ez daukazu beste seme-alabarik?

—Nik dakidala, ez.

Nire ustezko anaiak zuzendu zidan irribarre inozoari muzin eginez erantzun haietatik zer sinetsi behar ote nuen galdetu nion neure buruari hainbatgarrenez. Edonola, itaunka alferrik ari nintzelako sentiera izan nuen.

—Salmenta ona eginez gero —jarraitu zuen Cissé—, apur bat lagunduko dizuet etxeko gastuekin, hemen gauden bitartean.

«Hemen gauden bitartean» haren esanahia mamurtzen nuen bitartean umeari erreparatu nion. Ostera ere lo geratzen ari zen, bere platera harrikotik pasatuta bezain

garbi utzi ondoren. Mahaitik altxatu nintzen eta keinua egin nien jarraitzeko.

—Bi koltxoi dauzkat gelan. —Hormaren kontra zegoena lurrean zabaldu nuen—. Eta hau zuek erabili dezakezue. Bero handia egiten ari da azken gauetan eta ez duzue mantarik beharko.

—Primeran egongo gara, Mamou, asko eskertzen dizut dena.

Cissé txikiak eskuak berriz nire sorbaldetan itsaste-koa egin zuen, baina hari iskin egin eta gelako atera jo nuen.

—Berandu da —esan nion—, eta hobe duzue oheratzea. Nik sukaldeko trasteak bildu eta beste horrenbeste egingo dut.

Gelako atea itxi, sukaldera itzuli eta pentsakor geratu nintzen apur baten. Ez zen batere hotsik ateratzen etxeko beste hiru geletatik. Osman zegoen batean, eta kaleko salmentan ziharduten hiruna senegaldar gazteago beste bietan. Ondo moldatzen ginen, eta ez zuen inork txartzat hartuko pisukide berrien kontua, are gutxiago senideak zirela esanez gero. Dena dela, neure burua konbentzitzen saiatu nintzen haien egonaldia ez zela gehiegi luzatuko.

Haiek topatzearen ustekabeak une batez bizkortu eta pixka bat ahantzarazi zidan Errekaldeko jaietatik nekarren nekea, baina bueltan zetorren. Beraz, harriko txikia arin egin eta ni ere oheratu nintzen. Gelan sartu nintzeneko lo seko zeuden nire ustezko senideak.

Aurkibidea

I	UZTAILAREN 4a.	9
II	UZTAILAREN 5a.	27
III	UZTAILAREN 6a.	45
IV	UZTAILAREN 7a.	119
V	UZTAILAREN 8a.	199
VI	UZTAILAREN 11	239